

www.noaia.com

Noaia!!!



Elurrak ere bat egin zuen mendi bizikleta martxarekin



Pako Agudo entrenatzailea

“Berrikuntza asko izan dira aurten,
baina horrek taldeak etorkizuna duela esan nahi du”



Marka berriak aurkituko dituzu!

skunkfunk

emrillolimon

PRIVATA

Marije
Arropa denda

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - **USURBIL**

Sarrerren salmenta

bastero KULTURGUNEA

kutxa SEBILKUTXA KUTXAZANAK 943 00 12 00 www.kutxa.net

Ados produkzioak
WILT



OTSAILAK 10, ostirala, 21:30h auditorioan

ANDOAINGO UDALA Gipuzkoako Foru Aldundia Info: 943.303.540 www.andoain.org

Sarrerren salmenta

bastero KULTURGUNEA

kutxa SEBILKUTXA KUTXAZANAK 943 00 12 00 www.kutxa.net

Kukubiltxo
LEHIOTIK MUNDURA



OTSAILAK 12, igandea, 17:00h auditorioan

ANDOAINGO UDALA Gipuzkoako Foru Aldundia Info: 943.303.540 www.andoain.org

Sarrerren salmenta

bastero KULTURGUNEA

kutxa SEBILKUTXA KUTXAZANAK 943 00 12 00 www.kutxa.net

SEAN KEANE
Irlanda



OTSAILAK 11, larunbata, 20:00h ekitaldi aretoan

ANDOAINGO UDALA Gipuzkoako Foru Aldundia Info: 943.303.540 www.andoain.org

Albistea iruditan!!

Bilbon egingo den manifestaziora joateko deialdia

Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etarako manifestazio nazionala deiturik dago Bilbon. Eragile sozial ugari eta euskal sindikatu gehienek bat egin dute deialdi honekin: ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT, EHNE eta HIRU.

“Egoera larria bizitzen ari garelako, inoiz baino beharrezkoagoa da bertara azaltzea. Bilboko kaleak bete behar ditugu”, hala adierazi zuten ELA sindikatuko Buruntzaldeko kideek eskaini berri duten prentsaurrekoan. “Orain arte egin dituzten erreformak, krisi egoera aldatzeko izango zirela saltzen ziguten eta baita saldu ere, baina langileak saldu gaituzte. Onerako aldaketa izan beharrean, txarrrako izan da”, zioten agerraldian.



BURUNTZALDEKO ELAKO KIDEEK PRENTSAURREKOA ESKAINI ZUTEN
AURREKO ASTEAN.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ARITZ GORRITI

Etxean hotz, kalean bero

Asteazkenetik aurrera negu honi dagokionean izan ditugun orain arteko tenperatura hotzenak iragarri dituzte. Negu gorria ate joka dugu etxe barruraino sartzeko prest, baina oraingoan ere hotzak ez gaitu akabatuko. Egutegiari begira, otsailan sartu berri garen arren, kezka ugari eragiten ari diren zenbait arazo kalean islatuko dira eta, asteotarako deituak dauden mobilizazioen bidez. Azpiegituren ingurukoak izango da lehena, errauste planta, AHT, kartzela eta beste hainbat egitasmo geraraztea eskatuko duena. Larunbatean, Donostian.

Herritarrei handik eta hemendik, goitik eta behetik, murrizketak modu eta leku guztietatik aplikatzen ari zaizkienean, irmotasun osoz erabaki edo neurri berrak gogorak hartzen ari diren honetan, nola ulertu planteatu ere egitea, berez ez buru ez hankarik gabeko halako proiektu erasokorrak? Murrizketen bidetik kalera ateratzeko bigarren gonbita; hilaren 11rako. Arrazoiak non nahi aurki daitezke, norbere egoerarengandik hasita; langabezia, bizilekua izan dena galtzeko arriskua, hilabete amaierara ezin ailegatu, zalantzas

beteriko eta segurtasunik gabeko etorkizuna...

Kalea aldarrikapen mezuez josiko da hilabete honetan, kezka, buruhauste eta geroz eta larritasun gehiago eragiten ari den krisialdi eta murrizketak tarteko. Baina kaleak bestelako aurpegiak ere erakutsiko du asteotan. Tristura, amorru eta samina eragiten duten egoerak ordu batzuez alboratzeko aitzakia bai behintzat. Kalea aldarrien gune eta bozgorailu izan arren, etxepeek biltzeko, elkartzeko eta tarte atsegin bat igarotzeko aukera ere eskaintzen baitute. Oraingoan hori bai, mozzorrotuta. Hilaren 4an, makila eskutan eta egoki jantzita, Santa Ageda bezpera baita. Eta bi aste barri, norbere ideien fabrikatik sorturiko mitologiari loturiko jantziekin, kalera ateratzeko gonbita ere egina dago.

Hilabete hotz honen eta murgilduak gauden denetarik krisien aurrean, izango da beraz, irri egiteko aitzakia eta tarterik. Eta egoera orokorra zein den jakinda, izaten jarrai dezagula... Otsaila urteko hilabete hotzena dela esango dute gero! Kalean behintzat, giroa gorri egongo da asteotan!

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Gure Pakeako txapelketetan, izen ematea irekita

Bazkideen Arteko Txapelketak antolatu ditu Gure Pakeak, hasi berri dugun hilabete honetarako. Ekimenean parte hartzeko interesa duten bazkideek izen emateko azken eguna otsailaren 6a izango dute. Elkartetik berri eman dutenez, joko

guztiak, arratsaldeko 16:00etatik aurrera eta Artzabalen burutuko dira. Puntuak eta tutean lehiazeko aukera izango dute hilaren 7 eta 8an. Musean, igel jokoan eta tokan otsailaren 14 eta 15ean. Azkenik, txapelketa hauetako sariak hilaren 22an banatuko dituzte.

17:00etatik aurrera Artzabalen. Ondoren, luntxa dastatu ahalko da.

Bestalde, elkartetik otsailaren 13tik aurrera bazkietza kobratzen hasiko direla iragarri dute. Gure Pakeak joan den ostiralean burutu zuen urteko batzar nagusia.

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: otsailak 10. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 6.

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

JE **JON ELORZA**
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 **teilatua eta fatxadak**
943 37 38 79 - 620 80 01 86
 Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Herritar asko "ontziratu" dira jada

Erositako arraina edo haragia jasotzeko "tupper" berrerabilgarrien kanpaina martxan da jada. Larunbat eguerdian banaketa postua jarri zuten frontoian, "Ontziratu zaitez!" kanpainako eragileek; Usurbilgo Udalak, Hurbilago Elkarteak, Usurbil Zero Zaborrek, herriko zenbait saltokik eta Kutxa Ekoguneak. Ontziak banatzen ari ziren arduradunen esanetan, postua jarri zuten unetik nabarmena izan zen herritarren joan etorria.

Gogoan izan, etxebizitza bakoitzeko ontzi bat doan eskuratu liteke. Hilaren 28an pilotalekura gerturatzetik izan ez zutenek, larunbat honetan, otsailaren 4an "tupper" berrerabilgarria hartzeko aukera izango dute. Frontoira joanda, 11:30-13:30 artean. Ordura arte, ontziok astean zehar honako saltokietan ere jaso ahal izango dira: Kaxkoan, Juantxo Burdindendan, Santuenean Esnaola Etxabe harategian eta Aginagan, Imanol Txapartegi harategian. Haragia edo arraina jasotzeko ontzi berrerabilgarriak erabiltzen dituzten bezeroen artean, 30 euroko erosketa-saria zozketatu-ko da hilero, egitasmoan parte hartzen ari diren saltoki hauetako bakoitzean: Mikel arrandegian, Pello arrandegian, Alkorta harategian, Arruti harategian, Artzabal supermerkatuan, Esnaola Etxabe harategian, Imanol Txapartegi harategian eta Otar Goxo saltokian.



AURREKO LARUNBATEAN ERE ONTZIA ESKURATZEKO AUKERA IZAN ZEN.

Larunbatera arte eskuragarri

-Otsailaren 3ra arte: denden ordutegian; Juantxo Burdindendan; Aginagan, Imanol Txapartegi harategian; eta Santuenean, Esnaola Etxabe harategian.

-Otsailak 4, larunbata: 11:30-13:30 artean Dema plazan.

Egitasmoaren eragileak

Usurbilgo Udala, Kutxa Ekogunea, Hurbilago Elkarteak, Usurbil Zero Zabor eta zenbait saltoki: Mikel arrandegia, Pello arrandegia, Alkorta harategia, Arruti harategia, Artzabal supermerkatua, Esnaola Etxabe harategia, Imanol Txapartegi harategia eta Otar Goxo saltokia.

Autokonpostatze komunitarioan, izen ematea zabalik

Larunbat honetan ere, etxerako Tupper-a jasotzearekin batera, Udalak eta Usurbil Zero Zaborrek bultzaturiko autokonpostatze komunitarioan izen emateko aukera egongo da, pilotalekuan jarriko duten postura gerturatuta. Azaroa amaieran inauguratu zen, egitasmo honi loturiko lehen esperientzia gunea Artzabalen. Laster, gehiago zabalduko dira. Zati organiko ongarrian bihurtzeko ahalegina egiten duten herritarrek, %40ko hobarria jasoko dute.

"Auzitegi Gorenak ere kolokan jarri du Zubietako erraustegia"

2009ko irailean, Usurbilgo Udalak Ezarritako helegiteari erantzunez, Euskadiko Auzitegi Gorenak Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioako Estatutuen hainbat artikulua baliogabetu zituen eta horren ondorioz Kontsorzioaren zabal-kuntza legez kontrakoa zenez Txingudi Mankomunitatea hortik kanpo geratu zen. Mertxe Aizpuruak igorritako prentsa oharra dioenez, "errausketa bultzatu zutenek helegitea aurkeztu zuten erabaki judizial horren kontra. Orain, joan den abenduan, Espainiako Auzitegi Gorenak baztertu egin ditu ezarritako helegite guztiak, eta, beraz, sententzia hori irmoa da".

Honek, praktikan, Txingudi ez dela inoiz Kontsorzioako kidea izan suposatzen du eta, ondorioz, Txingudik partehartutako Kontsorzioako Batzarretan hartutako erabaki guztiak baliogabetuta daudela.

Mertxe Aizpuru alkatearen esanetan, "sententzia honen garrantzia ikaragarria da, eragindako erabakien artean Zubietan eraikitzeko zen proiektua baitago eta hori aurrera egiteko beharrezkoak ziren hainbat hitzarmenak ere bertan daude. Auzitegi Gorenak orain emandako sententzian erabaki horiei guztiei bere oinarri legala kendu die. Sententziak sortutako egoera honakoa da: errausketarako

proiektuak gizartean sortzen duen gaitzespenari, eta bere ekonomiarako eta osasunerako kaltegarritasunari, proiektuaren ahulezia juridikoa gehitzen zaie orain".

Horrela izanik, proiektua gelditzeko Kontsorzioak abenduan hartutako erabakia, guztiz zuzena izan dela ondorioztatu behar dela dio alkateak: "Gipuzkoako alkate gehienek igorritako idazkiak, erraustegiaren beharra deuseztatzen dutenak, nahikoa ez baziren, Auzitegi Gorenak beste arrazoi bat ere eman dio Gipuzkoari errausketarako proiektua betirako baztertzeko: ez du oinarri juridikorik".

Jone Urdanpilleta udal zinegotzia: “Uholdeetako kalteak ahalik eta azkarren konpondu nahi genituzke”

Dagoena behar bezala mantendu eta egunerokoan herritarrei oinarrizko zerbitzuak egoki emateko ardura dute. “Lan zerrenda luzea da”, Usurbilgo Udaleko zerbitzuen alorraz arduratzen den zinegotzi Jone Urdanpilletaren esanetan. Garbiketa lanak, hornidura konponketak... Eta azken hileotan, uholdeek utzitako kaltea bere onera ekartzeko lanean murgilduak daude. Urdanpilleta Gizarte Ongizate alorraz ere arduratzen da, eta NOAUA!-ri iragarri dionez, kontratazio berri bat bideratzekoak dira las-ter. Bere bi lan eremuez hitz egiteko bildu da gobernu taldeko zinegotzia, astekari honekin.



ZERBITZUEN ETA GIZARTE ONGIZATE ARLOETAZ ARDURATZEN DA
JONE URDANPILLETA, BILDUKO UDAL ZINEGOTZIA.

NOAUA! Zein da zure lan eremua, zer sartzen da zerbitzuen alorrean?

Jone Urdanpilleta. Batez ere, Udalak herriari eman behar dion eguneroko zerbitzua sartzen da alor honetan. Baita obra txiki eta erreforma baimenak edo herritarren eskaera desberdinei artatu eta erantzuna ematea.

JONE URDANPILLETA

Lurjauziak non nahi izan ziren azaroko denboralean, eta “herri bide batzuk ere oso kaltetuak izan ziren”

N. Zerbitzuen alorra hirigintzarekin nahastu daiteke. Nola desberdindu bi alorrek, biak lotuta egon arren?

J. U. Lotuta daude bi alorrek eta bazorde bakar batean biltzen dira, guk gero desberdintzen ditugun arren. Zerbitzuetatik, herritarrei egunero zerbitzu egoki bat emateaz arduratzen gara. Kale garbiketarik hasi eta lur zoru publiko eta ekipamenduaren zaintzarekin jarraitu, horniduren kontrola egin, azpiegituren mantendu osoa egin,... Kirol ins-

talazioak edo ikastolaren mantenu lanak, ur isuriak direla edota uholdeek bidean kalteak eragin dituztela, horiek ere zerbitzuetatik kudeatzen dira. Udal aparejadorea, administrari langilea eta brigada buruarekin, egun Udalak duen brigada osoaren kudeaketa eta lanen kontrola eramaten dugu. Herritarrekin ere harreman zuzena dugu, bai eskaerak egitera etortzen direnean edota beste zerbaiten kontsulta egiterakoan.

Hirigintzatik obra nagusiak bideratzen dira. Arlo honek beste dimentsio bat du.

N. Oro har, zein dira kudeatzen dituzten herritarren eskaerak?

J. U. Gehienetan obra txikien baimenak, etxe barruko aldaketak edo fatxada eta teilatu konponketekin zer ikusia dutenak. Ur-harguneak, saneamendua eta irisgarritasunarekin lotuta dauden baimenak ere izaten dira. Hala eta guztiz esan dezaket, beste eskaera asko konponbide baten bila iristen dira Udaletxera, eta horiei ere erantzun egokia ematen saiatzen gara.

N. Eskaera horien aurrean, Udalak noraino du erantzuteko ardura?

J. U. Obra baimenak ematerakoan

araututa dago noraino erantzun behar duen Udalak eta kasuz kasu zaindu behar du arauetan jasota dagoen hori ondo betetzen, zoru publikoa egoki mantentzen, beharrezko segurtasun neurriak ezartzen...

N. Azaroan izandako uholdeek ere lana eman dute zuen udal eremuan. Zer nolakoa?

J. U. Hurrengo egunetik, ia brigada osoa mobilizatu zen eta baita lana egin ere. Honek neure iritziz, eragina ere halakoa izan zuen. Garbiketa eta konponketa lanak alorrari lotuak daudenez, Zerbitzuetatik bideratu ziren guztiak, martxan jarriaz udalak dituen bitartekoak eta baita kanpotik ekarri zirenak ere.

N. Garbiketa lanak izan ziren gehienbat?

J. U. Atalluko ingurunean, Santueneako pasabidean, Aliriko eta Aginagako zubietan...Lur jauziak non nahi. Puntu beltzak horiek izan ziren eta lan handia suposatu zuen horien garbiketarak. Herri bide batzuk ere oso kaltetuak izan ziren eta konponketa lanak hasi aurretik, bakoitzari dagokion proiektua bideratu beharko dugu.

Puelako bidea konpontzen ari dira, eta laster Arrateko bideari ekingo diote

NOAUA! Uholdeak izan eta gutxira, zergatik ikusi zen beharrezkoa kaltetuei zuzendutako udal zerbitzua martxan jartzea?

Jone Urdanpilleta. Hasieran nahasmena sortu zen horren inguruan, ze "Zona Catastrófica" dagoeneko ez da existitzen eta horrelako kasutan diru laguntzak jasotzea zaildu egin da. Udalak bitarteko tramite lanak egin ditu kaltetuen eta Delegazioaren artean, eta horregatik eskatu zitzaizen udaletxera etortzea.

N. Erantzunik jaso duzue?

J. U. Ez da oraingoz Delegaziotik erantzunik jaso.

N. Bestelako egitasmorik baduzue?

J. U. Egun daukagun lan zerrenda handia da, eta mantentze lanekin lotuta departamendu honen helburu nagusia Udal Zerbitzu guztien hobekuntza lortzea da. Egitasmo berriei begira, egoera latza da baina, hasi berri dugun urterako inbertsio batzuk aurreikusita baditugu.

N. Horien artean, epe motzera begira lehentasunik baduzue?

J. U. Herri bideen konponketa. Uholdeek eragindako kalteak ahalik eta azkarren konpondu nahi genituzke. Udalak esfortzu bat egingo du horretan. Puelako bidea jada konpontzen ari dira. Eguraldiak laguntzen badu, datorren hilabeterako arazorik gabe, bukatuta egongo da, eta berehala, Arrate eta Urtia bideen konponketa lanekin hasi beharko genuke.

N. Zerbitzuen alorrak beste eremu batzuekin lotura du.

J. U. Bai. Langileek duten lan poltsari esker, hainbat ekitaldi izaten direnean prest ditugu lanera etortzeko.

Udalak bestalde, hainbat lokal ditu, Sutegi edo Artzabal esate baterako, eta guneotarako egiten diren eskaerak zerrendatzen dira. Horregatik, herrian antolatutako ekitaldiak direla eta, hilero agenda zehaztu eta ondo antolatu behar dugu.

Artzabal eta Santueneko jubilatutabernen esleipen prozesua, azken txanpan

Udaleko Gizarte Ongizate eremutik berri eman dutenez, azken hileotan, martxan egon diren Santuenea eta Artzabalgo jubilatutabernetako esleipen prozesuak amaitzeaz ari dira. Egokitu zaienei, esleipenaren berri egunotan emango zaiela iragarri du Jone Urdanpilletak. Gaineratu duenez, "esleipen prozesua Udalak bideratu du. Prozesua irekia eta erabat txukuna izan da".



SANTUENEA ETA ARTZABALGO TABERNEN PROZESUA IREKIA ETA TXUKUNA IZAN DELA DIO.

Gizarte Ongizatean: "Herrian dauden beharren eta droga-mendekotasunaren inguruko azterketa bat egin nahi da"

Gizarte Ongizate alorrari bultzada eman nahi dio gobernu taldeak. Langile berri bat kontratatzea dute laster eta udal lanpostu honetatik, diagnosi bat osatu nahi dute. Gerora, buruturiko azterketa abiapuntu gisa hartuta, hainbat egitasmo bideratzeko.

NOAUA! Krisia dela eta, Gizarte Zerbitzuetan herritarrek egin dituzten laguntza eskaerak gehitu dira?

Jone Urdanpilleta. Eskaera kopurua handitzen doa eta departamenduak duen lan kargan nabaritzen da. Laster, Ongizate eta Parekidetasunari lotuta, kontratazio berri bat egingo da, eta honek departamendua bera indartu eta herri mailako azterketa saiakera bat egiteko aukera emango digu. Herrian dauden beharren eta droga mendekotasunaren inguruko azterketa bat egin nahi da.

N. Udalak zer baliabide ditu halako larrialdi egoerei aurre egiteko? Zer esan egoera horretan dagoenari?

J. U. Krisi garaiak dira baina gizarte zerbitzutako aurrekontua mantentzea espero dugu. Egoera larrian dagoenari Gizarte Zerbitzuetara etortzeko esango nioke. Kasu bakoitzaren azterketa sakon bat egiten da, eta badagokio, diru-laguntza aukera izango du, bai alokairua ordaintzeko edo udal zerbitzuetan hobia-riak jasotzeko.

N. Eta udal jabetzako etxebizitzak laguntza horren barne daude ezta?

J. U. Udalak orain arte, larrialdiei aurre egiteko bi etxebizitza izan ditu prest Maixu etxean. Gizarte Zerbitzuetatik ikusi da horietako bat hutsik egon dela gutxienez bi urtetan, eta etxebizitza beharra handia dagoenez, Eusko Jaurlaritzari



MAIXU ETXEA.

eskatu diogu etxebizitza horietako bat alokairu sozialera pasatzeko. Une honetan tramiteekin gabiltza eta onartzen bada, esleipen bat bideratuko dugu etxebizitza hori alokairuan jartzeko.

Larrialdi egoera ugarituko balitz, Aldundiak dituen etxebizitzetara bideratuko genuke gaia, eta Udalak larrialdietarako beste etxebizitzaren bat aurreikusi beharko luke.

Inauteri Festako afaritarako txartelak dagoeneko salgai

Gerturutzen doa mozorrotzeko eguna. Bi aste barru, ezohiko itxura hartuko du Kaxko inguruak. Aurtengoan desfilatzeko proposatu den gaia, mitologia da. Herritarrek prestatutako mozorroen emaitza ikusteko otsailaren 18ra arte itxaron beharko den arren, Inauteri Festarako afaritarako txartelak eskuragarri daude jada.

Asteazkenaz, otsailaren 1az geroztik salgai daude, hilaren 18an ospatuko den Inauteri Festarako afaritarako txartelak. 15 eurotan eskura daitezke, NOAUA!ko egoitzan, baita Irrati eta Txiriboga tabernetan ere. Txartelak erosteko azken eguna, otsailaren 16a izango da. Aurtengo afaria, Olarrondo jatetxean dastatu ahal izango da.

INAUTERI JAIAREKIN BAT

“Otsailaren 21ean
asteartea, emanaldi berezia
eskainiko dute
Zumarteko abesbatzek”

Hitzordu bikoitza Zumarterekin

Joan den astean iragarri moduan, bi kalejira ospatuko dira Inauteri Festaren baitan. Bat iluntzean, Burrunbazale txarangarekin eta bestea eguerdi partean, Zumarteko Zumartxan txarangarekin. Ez da ordea inauteriotan Usurbilgo Musika



EGUERDIAN ZUMARTXAN TXARANGAKOAK ARITUKO DIRA
ETA ILUNTZE PARTEAN, BURRUNBAZALEKOAK.

Eskolak deitu duen hitzordu bakarra izango. Otsailaren 21ean, abesbatzek emanaldi berezia eskainiko baitute, arratsaldeko 18:00etatik aurrera Sutegin.

Gaztelekuan ere jai

Berrikuntza gehiago ere badira. Inauteri Festa egunera bueltatuz, Gaztelekuak ekitaldia antolatu du, herriko 12-16 urte arteko gazteentzat. Aurtengorako proposatu den gaia –mitologia- baliatuz, “Ilargi-Eguzki” izeneko jaialdia burutuko dute aipatu egoitzan. Bezperan, otsailaren 17an Udaregi ikastolako ikasleek dantza ikuskizuna eskainiko dute Oiardo Kiroldegian.

15 eurotan jarri dira
salgai NOAUA!n,
Irratin eta Txiribogan

Asteazkenean jarri ziren salgai Inauteri Jaiko afarirako txartelak. 15 eurotan eskura daitezke txartel horiek, NOAUA!ko egoitzan bertan edota bi taberna hauek: Irrati eta Txiriboga.

Gogoan izan txartel horiek eskuratzeko azken eguna otsailaren 16a izango dela.

Aurtengo afaria, Olarrondo jatetxean dastatu ahal izango da.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Elurrak edertu egin zuen BTT taldeak antolatu zuen mendi martxa



Andatza Mendizale Elkarteko BTT taldearen asmoa hauxe zen: animatzen ziren guztiei mendiko bizikletaz gozatzeko aukera eskaintzea, “neguko egunik hotzenetan bada ere, eta hortik probaren izena Irisasi BTT 2012 *hotzak akabatzen*”. Bete-betean asmatu zuten, elur-giroan ospatu baitzen mendi bizikleta martxa. Ikuskizuna txirrindulariek eskaini zuten igandean, baina baita naturak ere.

32 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten partehartzaileek. Irisasi-Andatza mendian barrena ibili ziren eta elurra baino, lokatza izan zen arazorik handiena hainbat tokitan.

Andatza taldearen web orrian aurkituko dituzue argazki gehiago.



PARTEHARTZAILE BAT, ELURRETAN “ATSEDEN” HARTZEN.



Pako Agudo, 2. nazional mailako entrenatzailea

“Taldea egiten gabiltza”

Usurbil Kirol Elkartearentzat, honakoa estreinaldiz beteriko denboraldia izaten ari da. Zuzendaritza taldea berritzeaz gain, entrenatzaile aldaketak izan dira, eta baita jokalarien joan etorria ere. Horren guztiaren isla da, elkarteko eskubaloitza taldeetako bat; senior mutilen, 2. nazional mailako taldea hain zuzen. Usurbil Atez Ateko hamalau jokalariek, Pako Agudo entrenatzailearekin batera, erronka nagusi bat dute aurrean; taldea sortu eta egun dauden mailan egonkortzea.

NOAUA! Aldaketa askoko denboraldia izaten ari da zuentzat. Zer moduz egokitu zarete berrikuntzetara?

Pako Agudo. Aldaketa izugarria izan da. Iaz zuzendaritza taldeak kluba uzteko asmoa aurkeztu zuen. Haien laguntzarekin hasi da aurtengo denboraldia, baina aurpegi berriekin, bai zuzendaritza eta entrenatzaile aldetik. Niri Euskadi mailako goiko taldea entrenatzea egokitu zait. Erronka oso polita eta oso zaila da. Jokalari batzuk talde kide izan ditut, beste batzuk lehen entrenatzaile nintzenekoak dira. Hasieran oso zaila izan zen entrenatzaile eta lagun arteko muga jartzea. Entrenatzaile moduan kategoria berria da niretzat eta jokalariei entrenatzaile aldaketa nahiko zaila egin zaie. Entrenatzailea aldatzen denean asko aldatzen da entrenatzeko modua, dena aldatzen da. Egokitze prozesu hori nik uste ez dela oraindik amaitu. Taldea egiten gabiltza.

N. Talde berri bat osatu dela esan liteke?

P. A. Hori da. Berrikuntza asko izan dira aurten, baina horrek taldeak etorkizuna duela esan nahi du. Gazte jende asko izanda eta lehenengo urtetik Euskadi mailan jokatzen arituta, hiruzpalau urte barru egingo da taldea. Talde sendo bat izatea espero dugu.



TALDEKO PARTAIDEAK, KIROLDEGIAN DUELA GUTXI EGINDAKO ERRETRATUAN.

N. Zuen denboraldiko erronka beraz, oinarri sendo bat eraikitzea litzateke?

P. A. Bai. Talde bat sortzea hurrengo urteetarako, kategoriaz ez jaitea. Kategoria honetan mantentzen saiatu nahi dugu, jokalaria bezala ondo hezteko.

PAKO AGUDO

“Gure erronka kanpoko partidak dira. Etxean zortea dugu Usurbilgo zaletuekin”

N. Denboraldiko lehen zatia amaitu duzue?

P. A. Lehen itzuli osoa eta bigarreneko lehen partidak jokatu ditugu. Pozik egon behar gara. Hasieran sei edo zazpi neurketa segidan galdu arren, hobetzeko lan asko egin dugu. Orain ikusi da sailkapena hartuta, sei edo zazpi aurkari horiek lehen postuetan daudela, eta

gure ligako partidak izan zirenak, batez ere etxean aurrera atera genituen. Lehenengo itzulia bukatuta, azpitik hasita laugarren amaitu dugu. Horrek salbatu gaitzkeela esan nahi du. Bigarren zatian hobetzea espero dut. Berez hor ibili gaitzke, behetik hasita hirugarren edo laugarren postuan.

N. Aurreikuspen itxaropentsua egiten duzue beraz?

P. A. Gure erronka kanpoko partidak dira. Etxean zortea dugu Usurbilgo zaletuekin. Gasteizen edo Bilbon pertsona gutxi joaten dira partidak ikustera.

Etxeko partida asko atera ditugu, jokalaria hazi egiten direlako kiroldegia beteta. Horrek puntu estra asko ematen dizkio taldeari. Kanpoan puntu bakarra lortu dugu, gainerako guztiak etxean.

N. Etxekoa irabazia dago, kanpoan dago zer egin?

P. A. Etxekoa mantendu eta kanpoan hobetzen saiatu behar dugu.

“Datozen bi hilabeteotan denboraldi osoa jokoan izango dugu”

NOAUA! Entrenatzaile moduan, nola ikusten duzu taldea bigarren itzuli honi aurre egiteko?

Pako Agudo. Ondo. Gabonetan ete-naldi luzea izan dugu, hiru astekoa. Entrenamendu eta forma aldetik nola egongo ginen pentsatzen genbiltzan. Entrenamenduak nola egin, lesionatu batzuk genituen, horiek berreskuratu nahi genituen liga hasi baino lehen. Baina ezinezkoa izan da, batzuk kilokolo daude. Halere, jokalariai uste baino hobeto daude. Lehenengo partidak jokatu bigarrenaren aurka eta hirugaratik galdu genuen, eta gainera kanpoan.

PAKO AGUDO

“Hobetzen ari gara. Horrek esan nahi du lana ondo egiten ari garela, hasi ginenetik hona”

N. Badago, talderen bat buruhausterik eman dezakeena hurrengo asteetan?

P. A. Ezin da jakin, bi ligaxka daude. Batzuk Estatu mailara igotzeko txapelketa jokatzen dute. Gero beste sei talde gaude, mailaz ez jaisteko lehian. Gure ligako partidak irabazten saiatu behar dugu, eta ahal bada, besteetatik zenbait puntu lortu. Batez ere, azken jardunaldietara puntu beharrezkin ez iristen saiatu behar dugu, badakigu eta kanpoan jokatzeke zer arazo ditugun. Gure

asmoa hori da; azken lauzpabost partidetara, nahiko lasai iristea.

N. Noizko argitu daiteke, zer gertatuko den?

P. A. Hilabete eta erdi edo bi hilabete barru. Datozen bi hilabeteotan denboraldi osoa jokoan izango dugu.

N. Buelta ere eman diezaiokezue, taldeak bizi izandako urte zailei?

P. A. Jokalari izan nintzenez mailaz jaitsi ginen. Lehengo urtean adibidez, jaisteko zorian egon zen. Ez zen jaitsi. Goiko taldeek egiten dutenaren baitan dago geure egoera. Espainia mailakoak jaisten badira, guri egokitzen zaigu jaistea. Orain adibidez, Zumaiako Pulpo taldea hortxe dago, azken postuan. Horregatik diot, badaezpada behetik hasita laugarren edo bosgarren postuan geratu behar gara.

N. Erronka betetzeko, zer alderdi indartu dezake taldeak?

P. A. Taldea egiten ari da. Progresio honetan jarraitzen badu, nik uste dut denboraldi amaierarako maila hobea eman behar dugula eta orduan dena jokatzen dugun hilabete hauetan, liga hasieran baino askoz hobeto egongo garela. Hor ikusiko da zer mailatara iritsiko garen. Hobetzen ari garela ikusten ari gara. Horrek esan nahi du, lana ondo egiten ari garela, hasi ginenetik hona. Erronka motzak jarriko ditugu, hobekuntza txikiak egiten joateko; aste-ko partidak.



DIARDO KIROLDEGIAN GIRO POLITA IZATEN DA PARTIDETAN.

“Aldagelan dagoen giroak eraman gaitu gauden tokira”

NOAUA! Taldeak zer indar gune ditu?

Pako Agudo. Indar gunea beraiek dira. Adin diferentzia handia dago, 18-30 urte artean dituzte jokalariek. Baina etxeko partidetan, jokalarien arteko harremanak eta aldagelan dagoen giroak eraman gaitu gauden tokira. Hori mantendu behar da. Usurbilen figurak inoiz ez ditugu izan, beti nabarmendu da talde jokoagatik. Hori mantendu eta babestu behar da.

N. Zer esan nahi zenieke taldeko jokalariei?

P. A. Gauden bezala jarraitzea. Badakigu luzea, zaila eta gogorra izango dela baina pixkanaka, emaitzak lortzen ari gara. Ia denboraldi hau bukatzerakoan, denok pozik ateratzen garen hemendik.

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...

Muna lurra 2, 943 11 82 53

Josue

Igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

“Sena zendu gabe”, Iñaki Agirresaroberen diaporama emanaldia, ostiralean Sutegin

Euskal Herriko berezko ezaugarriak erakutsiko dituen argazki bilduma prestatu du Iñaki Agirresarobe herritarrak ostiral honean, otsailaren 3an, 19:00etan Sutegin erakusteko. 30 minutuko diaporama emanaldia eskainiko du, auditoriora bertaratzen direnentzat. Sarrera doan.

NOAUA! Argazkilaritzarako zaletasuna nondik datorkizu?

Iñaki Agirresarobe. Batxilergoan nengibiltzean, eskolaz kanpoko ekintzen artean argazkilaritza ikastaroa antolatu zuten. Izena eman nuen, gustatu eta horrek eman zidan zaletasunarekin jarraitzeko argibidea. 18 urterekin hasi eta gaur arte, 25 bat urte handik eta hemendik ibili naiz. Lehen analogikoan, betiko negatiboekin, hemengo jaietan argazkiak ateratzen ibiltzen nintzen. Negatibo guztiak gordeta ditut. Digitala hasi zenean, bost bat urte geldirik egon nintzen. Pixka bat, niretzat gehiegizkoa izango zelakoan. Duela bost bat urte berriz hasi nintzen eta hemen jarraitzen dut.

N. Bost urteko etenaldiaren ostean, erraz egokitu al zinen teknologia berrietara?

I. A. Hasieran kosta zitzaidan, baina kamera digitala erosi, programa pare batekin trebatu eta horrekin argazkiak artxibatu eta emanaldietarako muntaiak egiten ditut.

N. Teknologia berria nahiago zaharra baino?

I. A. Berriak aukera piloa ematen ditu. Teknologia zaharrarekin argazkia atera aurretik gehiago pentsatu behar genuen, bai baikenekien gero dena errebelatuko

zela eta kontzientziako karga horrekin ibiltzen ginen. Halere, txuri beltzeko argazkiak egiten nituenean, lagun baten laborategira joan eta irudiei ukitu txikiak egiteko aukera nuen. Horrek ere bere xarma bazuen. Gaur egungo teknologiak ematen dituen aukerekin, beste mundu bat da. Nahi adina gauza egin daitezke. Nahi adina argazki atera eta aukeraketa egin beharra dago.

N. Batxilergoan hasi zinenetik, bilduma ederra osatuko zenuen gaur arte?

I. A. Bai. Bere garaian Santixabeletan adibidez dezente atera nituen, fototekan izango dira. Horrez gain, argazki zaharretan ateratako 15.000 bat negatibo gordeta ditut. Digitalizatzeko asmotan nabil.

KULTURA ETA NATURA

Lehen kultur ekitaldietako argazkiak atera ohi zituen nagusiki, orain naturarekin zerikusia dutenak batez ere

N. Ostiraleko emanaldia ildo beretik joango da?

I. A. Denetarik pixka bat. “Sena zendu gabe” izenburua jarri diot emanaldiari. Euskal Herriko ezaugarri batzuk hartuta osatu dut bilduma; kirola, ikurrak, ohiturak, jaiak... 300 bat argazki sailkatu eta horrekin ordu erdiko emanaldi bat eskainiko dut.

N. Emanaldi hau prestatzeak zer nolako lana suposatu dizu?



IÑAKI AGIRRESAROBAREN SAIOA

19:00ETAN HASIKO DA.

I. A. Urteen poderioz, festetako, ekitaldietako edo paisaien argazki mordoa nuen. Bost zutabe jarri nituen; kirolak, ohiturak, dantzak, paisaia, garai bateko etxegintza... Eta argazkiak horien inguruan bildu eta muntaia egin dut. Emanaldia ez nuen astunegia izatea nahi, ezta arinegia ere. Oreka bilatzeak eman dit buruhauste gehien.

N. Hau ez da antolatzen duzun lehen emanaldia. Aurrekoak paisaiei lotuagoak zeuden?

I. A. Bai. Lau urte sasoietan, Usurbilgo leku batzuen bilakaera erakusten zuten argazkiak atera izan ditut. Herri desberdinetako egunsenti eta ilunabarrei buruzko beste emanaldi bat ere prestatu nuen.

N. Zein da atera ez duzun eta eskuratu nahi zenukeen argazkia?

I. A. Buruan darabilt, lehen plano zehatzak egitea; ur tanta bat, hostoak. Gauza zehatz bat aukeratu eta horri buruzko argazkiak egitea. Urte desberdinetako Santixabeletako argazki batzuk ere baditut digitalizatuta, eta bilakaera bat egin nahi nuke horiekin.



Apirilaren 30ean hasiko da Agurtzane Solaberrieta eta beste 12 lagunen aurkako epaiketa

D3M eta Askatasuna auziei loturiko epaiketa noiz izango den jakitera eman da egunotan; apirilaren 30ean hasiko da eta 13 euskal herritar epaituko dituzte. Usurbildar bat tartean; Agurtzane Solaberrieta. Hedabideek berri eman dutenez, maiatzaren 18ra arte luzatuko da epaiketa.

Denboran atzera egin behar da apirila amaieran abiatuko den epaiketaren nondik norakoak argitzeko. 2009ko martxoan burutu ziren Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetara Demokrazia 3.000.000 (D3M) eta Askatasuna izeneko plataformek aurkeztu nahi izan zuten, baina Espainiako Auzitegi Gorenak baliogabe utzi zituen. Ez hori bakarrik. Testuinguru horretan, urte hartako urtarrilaren 23an, zazpi lagun atxilotu zituzten, tartean, Agurtzane Solaberrieta usurbildarra. Urte bereko martxoaren 25ean, guztiak behin behinean aske geratu ziren. Hilabete batzuk beranduago, 2009ko irailean, apirila amaieran epaituko dituzten hamahiru lagunak auziperatu zituen

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak, ETako kide izatea edo erakunde armatua laguntzea egotzita.

Aipatu moduan, apirilaren 30ean hasiko da epaiketa, eta iragan aste amaieran jakin zenez, maiatzaren 18ra arte luzatuko da. Agurtzane Solaberrietarekin batera, Madrilen epaituko dituzte; Arantza Urkaregi, Eli Zubiaga, Iker Rodrigo, Imanol Nieto, Amparo Lasheras, Hodei Egaña, Unai Berrostegeta, Zuriñe Zorrozueta, Fernando Antia, Jose Antonio Munduate, Xabier Isasa eta Aitor Ligerzana.

Segurolaren aldeko mozioa

Bestalde, Patxi Segurola herritarra otsailaren 15ean epaituko dute Parisen. Usurbilgo Ezker Abertzaleak hara joateko autobusa antolatu du. Izen ematea orriak, Txiribogan, Bordatxon eta Aginagako Arrate zahar egoitzan jarri dituzte. Astearte honetan burutzekoa zen osoko ohiko bilkuran, Segurolaren estradizio eskaerari lotuta mozioa aurkeztu eta bozkatzekoa zen Usurbilgo udalbatza.



OSTIRALEKO ELKARRETARATZEAN JOKIN ERRASTI ZORIONDU NAHI IZAN ZUTEN. 36 BETE DITU AGINAGARRAK.

Zehaztasun gehiago, datorren astekarian.

Elkarretaratze jendetsua

Hedabideek aurreratu dutenez, "Herrira" izeneko euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen aldeko herri mugimendu berria aurkeztuko da igande honetan, 12:00etan Donostiako Kursaal. Bertara joateko deia zabaldu zuen Egin Dezagun Bidea herri ekimenak, joan den urtarrilaren 27an frontoian burutu zen azken ostiraleko elkarretaratzean. Mobilizazio jendetsua izan zen. Urtarrilaren 7ko Bilboko manifestaldiko irudiak proiektatu ziren, oraingoan, Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak deiturikoa izan zen elkarretaratzean.

Azpiegitura egitasmo handien aurkako manifestaldia Donostian

Lanak gerarazi eta eredu aldaketa lbat eskatzea, bi aldarrikapen nagusiok biltzen ditu, larunbaterako, otsailaren 4rako Gipuzkoan aurreikusiak dauden azpiegitura egitasmo handien aurka Donostian deitua dagoen manifestaldiak.

Zubietako erraustegia, kartzela, Jaizkibelgo superportua, AHT, Hondarribiako aireportuaren handi-

tzea... Proiektu hauen lanak geraraztea eskatzeko manifestaldia deitu dute larunbat honetarako Donostian. 17:30ean abiatuko da Bulebarretik, "Gipuzkoa desberdin baten alde, eredu aldatu: azpiegitura-lan handiak gelditu!" lemapean.

Manifestaldiaren bezperatan, urtarrilaren 31ko osoko ohiko bilkuran aurkeztekoak ziren deitua dagoen mobilizazioari atxikimendua adieraz-

ten dion mozioa. Udal ordezkariak aztertu eta bozka zezaten, Usurbil Zero Zabor bilguneak udalbatzara eraman-dako testuak gainera, larunbateko hitzorduan herritarrak parte hartzea deitzen ditu, azpiegiturekiko, modu berezian errauste plantarekiko aurkakotasuna adierazi eta gai honen inguruko gogoeta eta gizarte-etzabaida bul-tzatzea eskatzearekin batera. Datorren astekarian, zehaztasun gehiago.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Behoko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

LZP (Lurralde Zatikako Plana)

Lurralde Zatikako Plana ondorengo 20 urtetarako Donostia eta inguruko herrien lurraldearen eboluzioa inposatzen duen proiektu bat da, Donostiaren metropoli-hiribildu handi bilakatzea Donostialdea; herri afektatuak Donostia, Usurbil, Lasarte, Hernani, Urnieta, Andoain, Astigarraga, Oiartzun, Orereta, Lezo, Pasaia, Irun eta Hondarribia izanik. Herritarren iritzia kontuan izan gabe aurrera doan proiektu honek aurkako 14.000 alegazio izan ditu, tartean Oiartzun, Hondarribia eta Usurbilgo udalenak. Usurbili dagokionez bertan erraustegia, makro- espetze bat, poligono industrial berri bat eta kuarter militarra eraikiko dituzte.

LZP-k mota askotako erabakiak ditu barne, baina tartean dira herritarrengan eragin handia izango duten hainbat makro-proiektu: erraustegia, Superportua, AHT(Donostiara iristen den zatia), Gaintxurizketako parke logistikoa edota Bigarren gerrikoa deiturikoa iparraldearekin lotuko gintuena. Guk AHT, superportua eta erraustegia gertuagotik aztertu ditugu, kalte handienak ekarriko dituztenak direla uste baitugu.

AHT

“Abiadura handiko tren”-ri tren deitzen badiogu ere, geldialdiei, distantziei eta energia gastuei dagokienez lurretik doan hegazkina dela esan dezakegu. Inoiz ikusitako azpiegitura handiena eta garestiena da. Gutxi gora behera 6.000 milioi euro inguruko kostua izango du eta Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean ordainduko da. Guztion zergetatik ateratako diruarekin ordaindua izango da, nahiz eta gutxi batzuk erabili ahal izango duten, arrazoi ekonomiko argien ondorioz.

SUPERPORTUA

Pasaia portua txiki geratu dela eta badia barruan tokirik geratzen ez dela argudiatuz, 100 hektareako azalera eta 2.800 metroko babes dika duen portu berri bat eraiki nahi dute, Jaizkibel atzeko itsasertzean. Kostua 750 milioi euro izango dela kalkulatu da. Jaizkibelgo biosferaren suntsiketa ekarriko luke, gainera, portua eraikitzeak Oarsoalde osoan hainbat azpiegitura berri eraikitze beharra eta ondoriozko gastuen handitzea sortuko luke.

ERRAUSTEGIA

Makro-proiektu hauetatik gehien eza gutzen duguna ziurrenik erraustegia da, eta orain 6 hilabeteko moratoria eskura-



ALTERNATIBAK DEFENDATZEAREN ALDEKOAK DIRA ITAYAKOAK.



PASAIKO SUPERPORTUAREN MAKETA MODUKOA.

tzea lortu dugunez alternatibei gogorki eusten hasi behar dugula uste dugu ITAYA osatzen dugun gazteok. Erraustegia beharrezkoa ez dela erakusteko hainbat ekintza burutu ditzazkegu: Usurbilen ezaguna eta erabilia den konposta, edo arraindegi zein harategietara joatean tuper bat eramatea plastiko zein paperak albo batera utziz. Egoera bidegabe honen aurrean inizatiba hartzeko garaia da!

Makro-proiektu hauek (eta beste hainbat) burugabeak iruditzen zaizkion edonork datorren otsailaren 4an Donostian du zita, Boulebarretik 17:30etan aterata makro-proiektuen aurkako manifestazioa izango baita.

ITAYAKoekin joan nahi izanez gero, Usurbilgo tren geltokian 16:24ko tre-

nean izango gara, animatu!

Belar Txarrak Errotik!

“Autodenfentsa feminista” tailerra

Larunbat honetarako, otsailak 14, “Autodefentsa feminista” izeneko tailerra antolatu du ITAYAK. Tailerra Bilgune Feministak emango du, soilik emakumeentzako eta edozein adinetakoentzako zuzendua dago. Tailerra kiroldegian izango da, 10:00etatik 14:00ak arte iraungo du.

Azaldu nahi duen edozein eskuak zabalik hartuko dugu.

Euskal Herriko IV. Mus Txapelketako kanporaketa, ostiral gauean Zendoian

Martxan da jada, Euskal Herriko Mus Federazioak antolatzen duen Euskal Herri mailako mus txapelketa. Laugarren edizioa burutuko da asteotan. Herri eta auzoetako kanporaketa saioetatik abiatu, herrialde mailetako saioetara igaro eta onenak Euskal Herriko mus txapelketako finalean lehiatuko dira. Kanporaketetako bat, ostiral gau honetan jokatu da Usurbilen.

Mus zaleek hitzordua dute otsailaren 3an, gaueko 22:00etan Zendoiaenean. Bertan jokatu da, Euskal Herriko IV. Mus Txapelketako kanporaketa saioa. Parte hartzeko asmotan den bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu, izen ematerakoan.

Sariak lehen lau bikoteentzat

Emaitza onenak lortzen dituzten lau bikoteek sari bana jasoko dute. Txapelkunek Saizar sagardotegian otordu bat; txapelkun ordeek, marisko lotea; hirugarren postuan sailkatzen direnek,

otordu bat Ardi Beltz garagardotegian; eta laugarren geratzen direnek, hamaiketako Zendoiaenean.

Final nagusia, Arbizun

Zazpi herrialdeetako finalak, hil honetako azken asteburuan jokatu dira; otsailaren 24tik 26ra. Eta final nagusia, Arbizun (Nafarroa) martxoaren 17an. Euskal Herriko Mus Federazioak antolatzen duen lehia irabazten duen bikoteak, 3.000 euro poltsikoratuko ditu, txapela, garai ikurra eta lau lagunentzat bidaia lortzearekin batera. Txapelkun ordeak, garai ikurra, 1.500 euro eta bi lagunentzat bidaiarekin sarituko dituzte. Hirugarren bikote sailkatuak, 750 euro eta asteburuko egonaldiarekin. Eta azkenik, emaitza onena duen laugarren bikoteak, 500 euro eta euskaraz ikasteko urte osorako 2 matrikula irabaziko ditu. Sailkatzen den bosgarren bikotetik hamaseigarrenera ere, guztiok ere sariak jasoko dituzte. Informazio gehiago eta txapelketako araudiaren berri, helbide honetan: www.euskalherrikomustxapelketa.org

Usurbilgo txirrindulariak bikain aritu dira Espainiako Txapelketan

Aurreko asteburuan, txirrindularitza egokituari dagokien Espainiako Txapelketa jokatu zen Ciutat de Palmako belodromoan. Hiru usurbildar aritu ziren eta hirurek emaitza bikainak eskuratu zituzten.

MC2 kategorian, Beñat Lizaso garaile izan zen, abiadura olinpikoa izeneko lasterketan.

MC3 kategorian, Amador Granados nagusitu zen kilometroko distantzian, jazarpen proban eta abiadura olinpikoa izeneko lasterketan.

Jon Sarasuak MC5 kategorian hartu zuen parte eta honek ere irabazi egin zuen. Lehena izan zen abiadura olinpikoa lasterketan.

Taldeka, Euskadi hirugarren izan zen sailkapen nagusian.



EUSKADIKO SELEKZIDAREN ELASTIKOAREKIN AGERI DIRA.

ESKUBALOI PARTIDAK OIARDON

OTSAILAK 4, LARUNBATA
16:30 Senior neskak, Euskal Liga "A":
Atez Ate Usurbil-Muskiz.

18:00 Senior mutilak, 2. nazionala:
Atez Ate Usurbil-El Pilar Marianistas.

OTSAILAK 5, IGANDEA
11:00 Senior mutilak, 2. territoriala:
Usurbil K.E.-Somos Eibar Eskubaloia.



IRUDIAN, IAZKO TXAPELDUNAK ETA TXAPELDUNORDEAK.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

DBH 2koak Aralarren izan ziren



Duela aste batzuk aipatu genuen moduan, Udarregi ikastolako ikasle talde bat (DBH2 mailakoak) Aralarren izan zen. Lekunberri herritik pasa ziren, trenaren

geltokitik paseo bat eman zuten eta Mendukilo izeneko haitzuloa bisitatu zuten. Bazkaldu ondoren San Migueleko Santutegira hurbildu ziren.

Akatsak zuzenduz

Urtarrilaren 27ko NOAUA!-ko Kalejiran atalean, Aginagako Maria Angeles Arrutiren kronikan, iaz 80 urte bete zituzten aginagarren argazkia ageri zen. Eta harekin batera, omenduen izen abizenak. NOAUA!ren akats bat tarteko ordea, ez dira herritar guztion izen abizenak argitaratu. Hona hemen, irudiko omendu denak; Eleuterio Errasti, Arantxa Aranzadi, Herminia Sanchez, Agate Rekondo, Josefa Sondesa, Ramon Rezola eta Antonio Arrillaga. Maria Angelesekin bere kronikan gaineratzen zuenez, "aipatu nahi ditut etor-



AGINAGAN OMENDU BERRI DITUZTEN LAGUNAK.

tzerik izan ez zutenak ere; Joxe Mari Eskudero eta Maria Isabel Zapirain". Barka eragozpenak.

Zumarteko bi ikasle Andoaingo Piano Jaialdian

Zumarte Musika Eskolako bi ikasleek parte hartuko dute asteburu honetan Andoaingo Piano Jaialdian. 780 pianista baino gehiago elkartuko dira Andoaingo Bastero Kulturgunean burutuko den ekintza honetan. Goizeko 9:30ean hasi eta igande arratsaldera arte, piano soinua besterik ez da izango Andoaingo herrian.

Zumarte Musika eskolako bi pianista egongo dira bertan, Maria Elozegi Azurmendi eta Amaiur Caballero Eizagirre. Amaiurrek larunbatean Ekitaldi Aretoan goizeko 11:15ean joko du, Bastiennen "El artista" izeneko obra eta, egun eta leku berean, eguerdiko 12:30ean Mariaren txanda, Hasslerren "Duetino" obrarekin arituko da.

Joko-Jolas jaialdia DBH4ko ikasleekin

Udarregi Ikastolako DBH 4. mailako ikasleek "3. adineko joko-jolasez beteriko jaialdi bat antolatu dizuegu, goiz eder bat pasa dezazuen. Parte hartzeko Gure Pakea egoitzan izena eman dezakezue. Nahiz eta ez den beharrezkoa, eskertuko genizueke bertan izena ematea antolatze-lanak errazteko.

Jaialdia otsailaren 8an asteazkena ospatuko da Oiardo Kiroldegian goizeko 10:30etik 12:30ak aldera arte. Bertan elkar topo egitea gustatuko litzaiguke".

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERRAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
kale nagusia 47, beheka A

Agenda!

Otsailak 3 ostirala

- Sena galdu gabe diaporama
Sutegin, 19:00etan.

Otsailak 4 larunbata

- Santa Ageda bezperako kantu
saioa Mikel Laboa plazatik abiatuta,
18:30ean.

- Zubieta Lantzen taldekoak
18:00etan aterako dira kantuan.

Otsailak 9 osteguna

- Bizkarrezur-muineko lesioen
inguruko hitzaldia 17:00etan Sutegin.

Goardiako farmaziak

Otsailak 2, osteguna

Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Otsailak 3, ostirala

Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 4, larunbata

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 5, igandea

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 6, astelehena

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 7, asteartea

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 8, asteazkena

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 9, osteguna

De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Otsailak 10, ostirala

Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Otsailak 11, larunbata

Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Otsailak 12, igandea

Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak
irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani

Telefono zenbakia: 943 552 087.

Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

Larunbat honetan,

Santa Ageda bezpera dugu...

Otsailaren 4an, larunbat
iluntze honetan ospatuko
da Santa Ageda bezpera.
Bi hitzordu deitu dira; bat Kaxkoan,
bestea Zubietan.

Kaxkoan, iluntzeko 18:30ean Mikel
Laboa plazatik abiatuko dira eskean
parte hartu nahi duten herritarrak.
Ekitaldia, Euskal Kantu Taldeak eta
Bota Punttuba Bertso Eskolak antola-
tu dute. Ordu erdi lehenago irtengo
dira Zubietan, 18:00etatik aurrera.
Zubieta Lantzenek deitu du ekitaldia.
Hitzorduotara agertu nahi duenak,
gogoan izan dezala makila eta ekitaldi-
rako egoki janztea.



ZUBIETAN ETA KAXKOAN ARITUKO
DIRA KANTUAN.

Sahararako gaien bilketa Urbilen

Sahararen Aldeko Lagunak
Elkartek, sahararrentzat
oinarrizko gaiak bilduko ditu aste-
buruan. Zehazkiago esanda, larun-
bat honetan, otsailaren 4an, egun
osoz bilketarako gune bat jarriko
dute Urbil merkataritza guneko
atarian. Arroza, pasta, lekaleak,
azukrea, atuna eta sardinak oliotan
eta konpresak bildu nahi dituzte.



LARUNBATEAN, EGUN OSOZ
GUNE BAT IPINIKO DA BILKETARAKO.

Lasarte-Usurbil BHI Institutuaren oharra

2009-2010 kurtsoan Batxi-
lbergoko ikasketak "Lasarte-
Usurbil BHI" Institutuan amaitu
zituzten ikasleek dagoeneko titu-
luak eskuragarri dituzte ikastetxe-
aren idazkaritzan.

1956 kinto afaria

1956. urtean jaiotako herrita-
rrek kinto-afaria antolatu
dute: otsailaren 25ean Antxetan.
Joateko asmotan denak, alde
aurretik eman dezala izena: 627
709 657 (Mari Kruz) edo 943
370 265 (Inaxio). Izen emateko
epea otsailaren 18an itxiko da.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

**BENTA
TABERNA**
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05


**ARRANDEGIA
PELLO**
PUNTA PAX 7
943 36 21 64
USURBIL 

ETXEBIZITZA

- Pisu bat alokatzen da Lasarten: 943365427. M. Jesus.
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukalde, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara eta igogailuarekin. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berrituta, fatxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komun. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Usurbilen, 70 metroko etxebizitza bat alokatzen da, eguzkitsua. Tlf: 608 671 925. Imanol.
- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komun eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudana pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komun, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idioia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrea, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegia ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursailen. Kalezarren. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komun, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitua batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro karratuko. Gaizteentzat... Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristixo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komun. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txararmon. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 647 120 253.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarondorekin. Deitu: 943 361 463
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Bete garajea, ondo zaindua. 622369646.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Xarma tabernarako sukaldari bat behar dugu. Interesdunek deitu 943 368 771 telefono zenbakira.
- Atsedena agindut dioten ama batek ama den emakume euskaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf: 673 445 903.
- Emakume eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
- Umeak zainduko nituzke arratsalde, edo zerbitzari moduan lan egin nahi nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatu eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Aterriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatu naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf: 628 692 334.
- LHko haurtrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziekin eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf: 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urte-tik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, asteleneretik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idioia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketak titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaindun edo dendarri lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendarri moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko.

618410123.

- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, barberak lanak, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetarako. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gazteok orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaindun edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest: 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdirnari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klaseak emateko prest. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685772602 // 943371277.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Manduca markako haurten motxila marroi bat aurkitu genuen urtarrilaren 24an frontoian. Galdutuenak Udaltzainguan galde dezala, bertara eraman dugu.
- Proba ezaazu modan dagoen kirola pade!! Klase bat doan. Irakasle tituladunak 667438145.
- Haur sila eta kapazoa, Bogaboo edo antzeko bat saltzen baduzu, deitu telefono honetara: 667 715 075.
- Estutxe baten barruan zeuden betaurreko graduatuak galdu ditut, Kale Nagusi ondotik Kalezarrena doan bide inguruan. Aurkitu badituzte, deitu 943 364 699
- Hemengo urra eta patata erositako nituzke. 634409888.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 (Jesus Mari).
- Legorretako babarruna salgai. 943 80 62 48.
- Arratoi mestizo arrazako txakur bat oparitzen da. Urte eta erdiko, oso leiala. 666 454 930
- 3 metrotako bambu kañaberr trukerako edo saltzeko. 620 809 568 (Manu Aranburu).
- Gas naturalarekin funtzionatzen duen bost sutako sukaldea labarekin. Egoera onean eta oparitzeko, premiazkoa da. 661 264 405 (arratsaldetan deitu).
- Zaldi bat jartzeko lursail bat alokatuko nuke 616 260 451.
- Belarritakoa galdu nuen Santixelab egunean, kaxko inguruan. Balio sentimental handia du, aurkitu baduzu, deitu telefono honetara: 687 406 209.
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatze eta prestatzeko etxeetan, elkarre gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaude: 669645585 / 943365191.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen Wii-a, PSP-a eta Nintendo DSI-aren softwarea aldatzen da, Internetetik jaitziko joko guztietan jolasu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen, ez da konsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



Zorionak bikote!! Libe, urtarrilaren 13an 7 urte eta Iban, otsailaren 6an 4 urte bete dituzue. Muxu bat!



Ongi etorri gurera Luken! Ze hirukote ederra osatzen duzuen... Muxutxu goxuk denon partez!!



Zorionak Nora!! Ostiralean 4 urte beteko dituzu, zeinen ongi ospatuko dugun. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Mikel! 7 urte beteko dituzu otsailaren 4ean. Muxu erraldoi bat etxeko guztien partez, ondo ospatu txapeldun.

HILDAKOAK

Blanca Arrieta Mendizabal, 58 urte, urtarrilaren 28an



M^a Angeles Añorga Azpiazu, 43 urte, urtarrilaren 29an



Maria Aramburu Elizalde 86 urte, Urtarrilaren 30ean



AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

• Jantoki zerbitzua.

• Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

• Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

Izena emateko epea:

**urtarrilaren 30etik
otsailaren 10arte.**

9:30etik-16:30tara



Usurbilgo Udala

AGINAGA
HERRI ESKOLA
Usurbil



baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044

Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

UDARREGI IKASTOLA



Udarregi ikastolak zera eskeintzen dizuete:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskutza Eleanitza: D eredua; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak. Haur Eskola (0 - 3) janari ekologikoa.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.

44 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6

LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12

DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com